

### Idazketa eta argiztapena

Erromanizazio-prozesua aurreratu ahala, latina gailendu zen hizkuntza ofizial gisa: txanponetan, dokumentu ofizialetan eta eguneroko adierazpide ohikoagoetan, hala nola zeramikaren gaineko *graffiti*etan edo hilarrietan.

**Andelos:** Hau Andelosen (Andion) aurkitu brontzezko plaka da. Honen testua idazki ofiziala zen; honen bidez, udaleko zinegotzi edo magistratuek eskaintza bat egiten zioten Apolori.

**Graffiti:** Zeramikaren gaineko *graffitia*. Marka-mota horiek pieza berdinetatik bereizteko egin ohi ziren. Zenbait *graffiti* aski eskematikoak ziren; beste batzuk, ordea, beren sortzaileen marrazteko gaitasunaren erakusgarri ziren. Gehienek erabiltzaileen izena zeramaten.

**Lucernae:** Eguneko argi-orduez kanpo, argi artifiziala ezinbestekoa gertatzen zen idazteari ekiteko. Argitzeko sistemarik soilenak, hala nola zuziak, erabili ohi zituzten gaez kale eta bideak argitu ahal izateko. Hartarako, *lucernae* edo olio-lanpara txikiak ziren sistemarik ohikoenak, beste batzuk ere baziren arren. Halako lanparak olio a zegoen toki guztietan erabiltzen ziren, eta ugari aurkitu dira Ebro aldeko hiri eta biziguneetan, bai eta Arabakoetan eta Oiassonen (Irun) ere. Mea-ustiapenetako barnea argitzeko ere erabili ziren lanpara horiek. Hasieran *lucernae* horiek Afrikatik eta Italiatik ekartzen bazituzten ere, laster hasi ziren egiten Ebroko ibarrean bertan.

**Stylos:** Hau *stylos* bat da, argizaria emaniko oholtxoetan idazteko erabilia: muturraz idatzi eta beste aldeaz zuzenketak egin zitezkeen. Orobat, luma edo *calamus* batez idazten zuten tinta erabiliz; kasu honetan, pergamino edo papiroaren gainean. Posta lakrez zigila zezakeen, eta zigilu bat ezarri bortxaezintasuna segurtatzearen.

Kaxa hau posta ofiziala lakratzeko zigilua babesteko erabiltzen zen.

Ehorzketa-lekua markatzen zuten hilarriek. Testuan hildakoaren hainbat datu eman zitezkeen: gurasoak, ahaideak nor ziren, nongoa zen, adina, jatorria, lanbidea, etab. Alorrik pertsonalenetako batean, heriotzaren aurreko jarreraren, latinak zuen ezarpenaren lekukotasuna ematen digute hilarri horiek. Nolanahi ere, latinezko testuen azpian euskal izenak ezartzen jarraitu zuten, hala nola Andere, Nescato, Gison, Ummesahar, Iluna edo Ibarra.